

ESPETXE-TXANDAKO LEGE-LAGUNTZAKO LETRADU KOORDINATZAILEA KONTRATATZEKO OINARRIAK

Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak deialdi bat iragarri du espetxe-txandako lege-laguntzako letradu koordinatzailearen lanpostua merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko.

Merezimendu-lehiaketak oinarri hauek izango ditu:

A/- Eginkizunak eta zerbitzuak: Espetxe-txandako lege-laguntzako letradu koordinatzaileak honako zerbitzu eta eginkizun hauek bete eta eskainiko ditu:

Espetxe-zuzenbidean aditua den legelari gisa, betebeharrak izango ditu:

- Bere izenean edo dekanoarenean deialdia egitea eta Batzordean parte hartzea, eta haren akta idaztea.
- Zerbitzua eskaintzen duten letraduak koordinatzea.
- Une bakoitzean dauden irizpideak bateratzea.
- Espetxeekin harremanetan jartzea.
- Zerbitzuan gerta daitezkeen gorabeheren berri ematea.
- Bilerak egitea, dekanoarekin eta Gobernu Batzordearekin adostutako maiztasunarekin.
- Hiru hilez behin, arestian aipatutako eginkizunei buruzko txostenak eta memoriak egitea eta igortzea.
- ICAGIren oinarrizko prestakuntzako eta prestakuntza aurreratuko programa eta/edo Abokatutzako Masterra programatzea, eskaintzea (beste hizlari batzuekin batera) eta ebaluatzea, Gobernu Batzordeak hala agintzen dionean.
- Dekanoak eta Gobernu Batzordeak agintzen dizkioten eginkizun guztiak.

B/- Hautagaiak: ICAGIko elkargokide diren eta jardunean dauden abokatuek aurkez dezakete beren hautagaitza, baldin eta deialdiaren datatik hasita lanbide honetan gutxienez 10 urtez jardun dutela eta elkargoaren kuotak, erantzukizun zibilaren aseguru eta gainerako administrazio- eta gizarte-karga guztiak ordainduta dituztela egiaztatzen badute.

C/- Eskabideak aurkeztea: Hautagaiek posta ziurtatu bidez aurkeztu ahal izango dituzte beren eskabideak, edo bestela, pertsonalki ICAGIren idazkaritzan, baita posta elektronikoko bidez ere, secretaria@icagi.net helbidean. Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Hautagaitza aurkezteko idazkia.
- Curriculum Vitae.
- Merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak.

D/- Epeak: Hautagaitzak aurkezteko epea 2024ko irailaren 13ko 14:00etan amaituko da, ezarritako horien artetik edozein bitarteko erabiliz.

E/- Hautaketa-prozesua: Dekanordeak, Gobernu Batzordeko idazkariak eta 8. diputatuak egingo dute hautaketa-prozesua.

Alegatutako merezimenduak egiaztatu ondoren, elkarrizketa pertsonal bat egingo da onartutako hautagaiekin.

Elkarrizketa pertsonalen aldia amaitu ondoren, aurkeztutako guztien artetik egokienak iruditzen zaizkion hautagaiak (gehienez 3) proposatuko dizkio batzorde hautatzaileak Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeari.

ICAGIren Gobernu Batzordeak 2024ko urriaren 31 baino lehen ebatziko du lehiaketa, eta lehiaketa hutsik uzteko eskubidea izango du lanpostuaren eskakizunekin bat datorren maila ematen duen hautagairik aurkezten ez bada.

F/- Kontratazioa: Sinatu beharreko kontratua zerbitzuak eskaintzeko errentamendua izango da, eta 3 hilabeteko probaldia eta urtebeteko iraupena izango ditu, probaldia barne. Kontratua urtero berritu ahal izango da, betiere alderdietako batek ez badu hura ez berritzeko asmoa adierazten, 15 egun lehenago jakinarazita. Gehienez ere 3 urteko iraupena izango du, berritzeak barne.

ICAGIk kontratua deuseztatzeko ahalmena izango du, 15 egun lehenago jakinarazita, eta deuseztatze horrek ez du inola ere kalte-ordainik edo inolako konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik emango.

Zerbitzuak eta eginkizunak garatzeko eta emateko, ICAGIk ez dio abokatu koordinatzaileari inolako espazio fisikorik, bulegorik, baliabide pertsonalik edo materialik eskainiko.

Abokatu koordinatzaileak bere baliabide pertsonal eta materialekin garatuko ditu eginkizun horiek. Hala ere, ICAGIren laguntza izango du bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa izanez gero.

Harreman horrek izaera esklusiborik ez duen arren, erabateko prestutasuna eskatuko da Elkargoarekin, eta horren barruan sartuko da lantokian presentzia fisikoa izatea, hori eskatzen zaionean edo kargu horrek berarekin dituen kudeaketa-eginkizunak burutzeko beharrezkoa denean.

G/- Ordainsariak: Ordainsari gordina urtean 6.000 eurokoa izango da kontzeptu guztiengatik, eta hilero ordainduko da. Ordainketa hori ordainsarien fakturarekin egingo da, dagokion zenbateko zatikatuarekin, eta indarrean dagoen BEZ gehitu beharko zaio, baita PFEZaren atxikipena ere. Aukeratutako hautagaiak probaldia gaingaitzen ez badu, zati proportzionala ordainduko zaio.

Nolanahi ere, arestian aipatutako urteko ordainsari horiek finkatu arren, Gobernu Batzordeak Deontologia alorreko prestakuntza-jardueretan parte hartzeagatik konpentsatu beharreko zenbatekoa finkatuko du, hala egokituz gero.

GOBERNU BATZORDEA